

GEORGES LACOMBERI OMENALDIA

Baionan, 1979-I-26

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaunak:

Badakizue zerik ekarri gaituen gaur Baionako euskal etxe honetara. Lankobe euskalari eta euskaltzalearen itzalak, haren mendeurrena baita. Denok dakigu lehen orduko Euskaltzaindian euskaltzain oso izan zela Lakonbe, Julio de Urquijori asko lagundu ziola *Revue Internationale des Etudes Basques* horretan, eta abar.

Baina gaur hemen diren jaun prestuen lanak entzuten ditugunean askoz osotuago eta jantziago geldituko da —segur naiz— gure izpirituan Lakonberen irudia eta guztiontzat izango da pizgarri eta eragingarri.

Ez noa bada neurez deus erraitera.

Bakarrik, duela hilabete guti Arana-Martija jaunak utzi zidan papera erakutsi nahi dizuet. Euskaltzaindiaren etxe zaharrean zegoen: *Projet de Règlement de la Bibliothèque de l'Académie de Langue Basque*. Lakonbek egina, 1921. urtean. Gure biblioteka berriaren erregelak egiten direnean gogoan izan beharko dugu Lakonbek utzi zigun eredu hau.